

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Elkarrizketak Urnietako EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Aulki Zuriak alderdietako hautagaiei

2015eko maiatzaren 21a, 441 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

HAUTESKUNDEAK IGANDE HONETAN

Lore eta landareen azoka larunbat honetan Andoaingo Kale Nagusian

Goizeko 09:00etatik 14:00etara azoka, tailerrak eta haur jolasak Andoainen.

Andoaingo kaleei bizitasuna emateaz gain, zuzeneko salmentari garrantzia ematea da ekimen honen helburua; horregatik, loreak kalera atera eta herritarrengana gerturatu dira saltzaileak. Andoaingo Udalak, Behemendik eta Dekolorek antolatuta dute azokaren lehenengo edizio hau.

Andoaingo Miguel Mari Oiartzabal eta Olasagasti loradenda azokan izango dira. Dena den, bertakoez gain, kanpotik ere saltzaile ugari batuko zaizkie. Guztira zortzi postu jarriko dituzte eta orotariko loreak izango dituzte salgai: garaikoak, aromatikoak, apaingarriak, sendabelarrak, haziak... Oretarako Viveros Landarbaso, Oiartzungo Zunoyar lorategia, eta Aritzku-



Ramón Pineda, Ainhoa Amundarain, Manu Segovia, Miguel Mari Oiartzabal eta Juantxo Pollacino.

rengo Tienduka izango dira pertaideak, besteak beste.

Azoka honetan bertan, haurrei zuzendutako tailerra es-

kainiko dute 12:00etatik 13:00etara Bastero eraikinaren aurrealdean. Landareen mundura gerturatzeko, loreak nola

landatu erakutsiko diete eta etxera eramateko aukera izango dute landatutakoa zaintzen jarraitzeko.

Aiertza, pregoilari



Aurtengo San Juan jaietako pregoilaria Ainhoa Aiortza izango da. Halaxe erabaki dute Andoaingo hainbat eragile eta kultur taldek. Boto gehiena jaso dituen pertsona izan da, izendatuta zeuden hautagai guztien artean.

Merezimenduzko arrazoi ugari azaldu dituzte Aiortza nabarmentzeko; hala nola, ia hogeita hamar urtez Buruntza auzoko jaien arima izatea, eta, herriko era guztieta-ko ekimenetan aurkezle izateaz gain, horien antolaketa batzordeetan parte hartzaile izatea. Adierazi dutenez, "azken batean, Ainhoa eragile aktiboa da andoaindarrek herrikoen eta Andoaingo kultur bizitza aberasteko antolatzen dituzten ekimenetan; pertsona eskuzabala, altruista eta zintzoa da".

Pirritx eta Porrotx pailazoak Urnietan



"Txo mikmak indioa da, itsasaren bestaldetik iritsia. Berarekin eta aitona Rokerekin plana egin dugu: Mundua aldatzeko batu gara, izan ere, Roke arotza baita eta egurrezko ametsak egiten ditu esna. Plastikozko zabortegei bihurtzen ari da itsa-

soa, eta balea bat gaixorik iritsi da hondartzara. Albaola ontzian San Juan baleontzi berria eraikiko dugu, eta enbata guztien gainetik, txiribuelta emango diogu munduari". Horixe da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Urnietan jendaurrean

antzeztuko duten ikuskizunaren aurrerapena. Ohi bezala ikusgarria izango da, aktore eta pailazoen kantu eta dantzeekin. Sarrerak dagoeneko salgai daude. Andoainen Ernaitzan, Urnietan Kantoin.

[URNIETA, 12. ORRIALDEA]

Festak Urnietan

Udalak eta Poxta Zahar gazte taldeak ia dena prest dute. Gazte taldeak dagoeneko bazkarirako txartelak salgai ipini ditu, parte hartzeko deia luzatzearekin batera.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

#M24 Udal Hauteskundeak

Urnietako alkategaiei elkarrizketak
URNIETA | Aiurri honetan:
EAJ-PNV | Eh Bildu | PSE-EE | Aulki Zuriak

ANDOAIN, URNIETA | Igande honetan:
Emaitzak www.aiurri.com webgunean

Muxu Goxo elkarte berriaren deialdia

Muxu Goxo elkarte sortu berria da Urnietan, eta logotipo beharrean dago. Lehiaketa abian jarri du 10-25 bitarteko gazteentzat. Logotipoak honako balioak adierazi behar ditu; errespetua, tolerantzia, sexualitatea, gaztetasuna, berdintasuna, aniztasuna, zoriontasuna, elkarbizitza eta maitasuna.

Muxu Goxo gazte, nerabe eta haien hezitzaileei laguntza modu anonimoan eta doakoan emateko sortu da. Online ikastaro eta aurrez aurreko kontsultez gain, formulario bidezko kontaktua ere eskainiko dute, identifikatu nahi ez dutenentzat. Bestalde, materiala eskuratzeko txokoa ere egongo da

(preserbatiboak, konpresak, ukenduak...).

Muxu Goxo Gabriela Zalazar ginekologoak, Tania Navarro psikologoak eta hainbat irakaslek babesten dute, beste hainbat profesionalen artean.

LOGOTIPO LEHIAKETA

JPG formatuan, 300 PPIko erresoluzioan eta CD batean sartuta aurkeztu behar da lana. Horrez gain, parte hartzaileek 3 euroko izen-ematea ordaindu eta egilearen datuekin batera, guztia gutunazal batean aurkeztu beharko dute maiatzaren 31 baino lehen Urnietako Etxeberri plaza 7ra. Irabazleak 150 euroko saria jasoko du.

Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia Urnietan

"Txo MikMak Txikia" ikusizun berriena eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen datorren ekainaren 3an, arratsaldeko

17:30etan hasita Egape ikastolako jolastoki estalian. Urnietan sarrerak salgai daude San Juan plazako Kantoi tabernan, 7 euroko prezioan.

Udalaren eta Behemendiren arteko hitzarmenaren bidez

Lursaila Miraballesen

Erratu industrigunearen aldamenen Udalaren jabetzakoa den lursaila Behemendi elkarteak eskuratu du, zesio baten bidez. Miraballes izeneko lursailaren hedadura 105.079 m²-koa da.

Behemendik orain lursail hori garbitu eta lehiaketa publiko bidez abeltzainen esku uzteko asmoa du. Horretarako lehia-

keta deituko du. Aurkezteko epea maiatzaren 29an amaituko da.

Lehiaketan kontuan izango diren ezaugarriak honakoak dira: ustiatzea Urnietako udalerrian egotea, ustiatze profesionala izatea, ustiatze duen tamaina eta luraila kudeatzeko duen ahalmena.

Behemendik bidalitako oha-

rraren arabera, "gaur egun lursailak nekazal erabilpen handirik ez du eta aldiz, bertako abeltzain profesionalak lur gehiago behar dute bere nekazal jardura aurrera eramateko. Lursaila garbitu ondoren abeltzaintza jardura ezarriko da bertan".

Informazioa: 943 490 21
behemendi@behemendi.eus

SAN ISIDRO EGUNAREN OSPAKIZUNA



Baserritarren eguna ospatu zuten aurreko ostiralean, besteak beste, Urnietan klasiko bilakatu den bertso saioarekin. Patxi Etxeberria eta Txomin Garmendia gaur egun pla-

zaz plaza dabilzan bertsolari beterranoenak izango dira. Biek ere baserriaren mundua eta kultura gertuko dute. Ikusleek bertsoez eta hamaiketakoaz gozatu zuten.

GAZTE FESTAK URNIETA 2015

Maiatzak 23 larunbata

09:00-14:00. Benjamin festa 2015 ikolodegiari. Urnietako eskola kirol koordinatzaileak antolatuta.

15:30-17:30. Gimnasia antziteko erakustaldia ikolodegiari. Izurde klubak antolatuta.

18:00-19:30. Judo erakustaldia udal ikolodegiari. Adarra elkarteak antolatuta.

Maiatzak 29 ostirala

17:00. Gazteentzako pailaza eta txokolatea Plazako Muxu plaza. Gazteentzako antolatuta.

17:00-19:00. Futbol miratzaile solidaria Egape ikastolako futbol zelaian. Pisuak eta Poxta Zaharrek antolatuta.

19:00-20:00. Herriko Buzirak eta emaldiaren kalejira Bosko Aritz txarangarekin.

19:00-22:00. Koroak eta afaria eta Trage lehiaketa. (Idazabal kalean (edo Egape ikastolan) Poxta Zaharrek antolatuta).

20:00. Jaiari hasiera emateko txupinazioa. Udaltzuean. Ondoren, Egape dantza taldeko dantzariak emanaldia.

20:15-21:00. Bosko Aritz txarangaren kalejira San Joan plazatik abiatuta.

23:00-03:00. Musika kontzertuak Idazabal kalean (edo Egape ikastolan) Poxta Zaharrek antolatuta.

Maiatzak 30 larunbata

9:30-10:00. Urnietako XXII. Argazki Digital Baliaren izen ematea Lekio kultur etxean.

10:00. Diana, Txarbolin txistuari, bandarekin.

10:00-13:00. Puzganek ikusentzarako Egape ikastolako jolastokian.

11:00. IX. Urnietako Dantza Jaiak. Egape dantza taldeak antolatuta. (dantzaren topagunea Egape ikastolan eta Lesakako Tantiurari Dantza Taldeak hartzen).

11:45. IX. Urnietako Dantza Jaiak. Dantza saioak herriko kale eta plazetan 4. edo 5. ibilbidean banaturik.

12:00. San Joan plazan (edo Krolodegiari). Egape Dantza taldeko taloenera laurid berezia.

12:00. Anplipotea gurpi gabean Maximo Yurramendik idazabal kalea Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00. Herri bazkaria Idazabal kalean (edo Egape ikastolan). Poxta Zaharrek antolatuta.

14:30. IX. Urnietako Dantza Jaiak. Dantza saioak bazkaria Egape ikastolako jolastokian.

16:30. Eszenografia talerra, Habitanten de Innamouth rol taldeak antolatuta. bere egoitza: Urbila 6.

16:00-20:00. Artisanatza merkatua San Joan Plazan Belaxeri elkarteak antolatuta.

17:00 -18:00. Kiki, Koko eta Moko pailazok, familiarrentzako ikuskizuna San Joan Plazan.

17:00 -19:00. "Super H margotzeta" Azkorte kaleko Hacer pailazan (Urnietako margotzeta).

17:00-21:30. Jolas kooperatiboak Elektrokarakandaz lagunduta Idazabal kalean Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00-19:00. IX. Urnietako Dantza Jaiak. Dantza Plazan ekimena San Joan plazan.

22:30-00:30. Berriko musika eta dantzagariak San Joan plazan Aitara DJ-arekin.

23:00-03:00. Musika kontzertuak Idazabal kalean (edo Egape ikastolan) Poxta Zaharrek antolatuta.

16:30. Herri jokabak eta kartak, Habitanten de Innamouth rol taldeak antolatuta bere egoitza: Urbila 6.

17:00-19:00. Gazteentzako aurpegi margotzea, globiflexia, gazteko lepoko eta eskumuturreko baloak San Joan plazan.

18:00. Herriko erakunde eta erakundearen kalejira.

19:00. INGO AL DEU taldearen erromera. San Joan plazan.

21:00. Jaiari hasiera emateko txupinazioa eta abentzarako.

Maiatzak 31 igandea

10:00. Diana, Urnietako Txarbolin txistuari, bandarekin.

12:00. Txarbolin eskaintza kontzertu-dantza emanaldia, ezizko zintorionan Urnietaren 400 urteurren ospatzeko domo berria aurkeztuz.

12:30. Gazteentzako Dantza Soka San Joan plazan, Egape Dantza taldeak antolatuta Urnietaren 400 urteurren ospatzeko.



Haurrentzako feriak probalekuan



EGOKITUTAKO FUTBOL MARATOIA MAIATZAREN 29AN

Begiak itxita futbolean arituko dira, datorren ostiralean

Egokitutako futbol maratoia antolatu dute Poxta Zahar eta Pausoka elkarteek maiatzaren 29rako. 17:00etatik 19:00etara Egapeko futbol zelaian arituko dira futbolean, baina ez normalean aritzen diren be-

zala; begiak zapiekin estalita eta zintzarridun baloi batekin baizik. Izena egunean bertan eman beharko da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Zein helbururekin antolatu duzue futbol maratoia?

Maria Lesaka: Urnietarrek beti dute Pausokari laguntzeko prestutasuna, eta oso eskertuta gaude. Oraingoan, laguntza eskatu ordez, aniztasun funtzionala duten pertsonen azalean jartzea nahi izan dugu, beraiek bizi dutenaz jabetzeko. Honela,itsuak direnen azalean jarriko dira bereziki.

Nola jokatu duzue futbolean?

Izaskun Labat: Bi talde egingo ditugu eta bakoitzean 7 lagunek jokatu dute. Helburua denok partida bera jokatzea denez, jokalaria txandakatzen joango gara 10-15 minuturo. Dena den, parte hartzaile kopuruaren arabera finkatuko dugu iraupena.

Futboleko joko arau berdinak izan al dira?

Nerea Uria: Ez gara zorrotzak izango... Lagun arteko partida izango da; elkarri ez heltzea, ez oztopatzea eta baloia indartsuegi ez botatzea izango dira arau nagusiak. Elkarrenganako errespetuz guztiok esperientziak disfrutatzea da helburua.



Izaskun Labat, Maria Lesaka eta Nerea Uria maiatzaren 29ko kirol jarduera antolatzen ari dira.

Zumba, futbola... Kirol ekintzak antolatu dituzue azkenaldian. Esparru horretan errazagoa al da jendea erakartzea?

M.L.: Erantzun oso ona ari gara jasotzen kirol ekintzetan, eta baliteke, jendeak hori nahiago izatea. Ohiko diren aisialdi ekintzetatik harago, kirol aisialdi errazago animatzen dira.

Zein jende mota gerturatzea nahi-ko zenukete?

N.U.: Adin tarte ezberdineko jendea elkartzea gustatuko litzazuke, gure helburua aniztasun funtzionala duten pertsonen gertutasuna lantzea baita. Agian, jende heldua horrelako ekintzetara gutxiago animatzen da, baina ariketa fisikoa baino gehiago, sentsibilizazio ariketa dela esan nahi diegu.

M.L.: Herritar guztiak daude gonbidatuta, gazte zein heldu.

Maratoiaren bitartez zein da urnietarrei helarazi nahi diezuen mezua?

M.L.: Alde batetik, aniztasun funtzionala duten pertsonak gure artean daudela, gurekin bizi direla, eta behar bereziak izanda ere, baliabideak egokituta guztiok parte har dezakegula ikusarazi nahi dugu. Bestetik, gaiarekiko sentsibilizazioa bultzatu nahi dugu, gertuagotik bizitzeko aukera emanez.



Zuen elkarteko haurrek, inoiz ez bezala, gainontzeko haurrekin jokatzeko aukera izango dute.

M.L.: Bai, ez dago haur itsurik, baina gehientsuenek ikusmena erabat garatu gabe dute. Zentzu horretan, beraiek bizi dutenera gerturatuko gara, baina zaila izango da elkarrekin partida jokatzea, beste arazo batzuk ere badituztelako.

Nerri batean haur hauen sozializazioa ere ahalbidetu dezake maratoiak, ezta?

N.U.: Bai, eta hori da landu nahi dugun gaietako bat. Haur hauen eta behar bereziak dituzten pertsonen integrazioa normalizatu nahi dugu.

HERRITARROK garaile!


EMAN BOTOA **ehbildu**

Maiatzak 22 OSTIRALA

Andoainen
kanpaina bukaerako sardin jatea,
Espigoian 20:00etan

Urnietan
Zaldundegi plazan 19:00etan



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Aldaketarako hauteskundeak

Azken hauteskundeetatik gizarte bizitza asko aldatu da: krisi larria, herri mugimenduen sorrera, hala nola, M15 izeneko, etxe kalera-tzeak, langabeziaren igoera, ustelkeria, bake eta bizikidetzaren gora-beherak eta gizarte bizitza osatzen duen beste hainbat aldaketa. Azken lau urteotan, ustelkeria, Espainakoa, batik bat, goruntz joan da. Dirudienez, hemen ere, Aldundiaren kasu, Bidegi dela eta epaileek zerbait ote dagoeneko susmoan esku hartu dute. Jakina, ezin daiteke Espainia-koarekin alderatu baina noizbehinka sagar ustel batzuk agertzen dira gurean ere eta horrelakoak herritarrek ezin dituzte eta ez dituzte begi onez ikusten. Dago-kion alderdi politikoak neurriak hartu behar lituzke eta ez, egin ohi denez, beste alde-ra begiratu.

Kontua da egungo egoeraren aurka sor-turiko mugimenduak, asko eta asko, behintzat, alderdi gisa antolatu eta hau-teskundeetara aurkeztu direla. Horixe esa-ten zieten gainontzeko alderdi tradizio-na-lek: aurkeztu zaitezte hauteskundeetara ea norarteko indarra duzuen jakin ahal izateko. Ba, hor ditugu. Ciudadanos ize-neko alderdia, Bartzelonan jaioak, ez du zer ikusirik alpatu herri mugimendu horie-kin, baina alderdi gisa estatu osoan aur-keztu da, indartsu aurkeztu ere. Besterik da Podemosen kasua ezen honek gehia-go biltzen baitu herritarren haserre-a.

Hori dela eta, hauteskunde hauek aldaketaren hauteskundeak izenez bataia-tu dituzte. Kanpainaren nondik norakoa ikusita, eta esandakoak entzunda, alda-keta da gehien entzuten den hitza, eta horrek herritarrei itxaropen berri bat sorrarazi die. Asperturik baitago popu-lazioa, hauteskundeetan egin ohi diren aginduak ez direlako betetzen. Horrega-tik, herriak benetako aldaketak nahi ditu eta neurri batean indar berriengan itxa-ropena jarri du, gutxienez, bipartidismoa hautsi eta indar berriak eszena politiko-an sartzen direla ikusirik. Egia esan, hemen, Euskal Herrian ez da nabarmen-tzen EAJ eta EH Bilduren inguruan bai-kabilitza baina, tira, inkesten arabera Podemos eta Irabazi, bata Aldundian eta bestea udalbatuetan sar daitezke. Horrek aldaketaren bat ekar dezake. Estatu mail-an nabarmenagoa da indar berrien sarrera eta, ondorioz, baita ere aldake-tarako joera. Nafarroakoa ere itxaropen-tsu dator. Azken batean, aniztasuna beti da itxaropentsua eta hauteskunde hauek aniztasun horretan oinarritzen dira.

Horrela bada, sarrera hau testuinguru gisa jarrita, koka ditzadan niri azpimarra-garriak iruditu zaizkidanak. Esan behar dut herrietako egoera ez dudala hain ongi ezagutzen. Andoingo eta Urnietakoa-ren berri Aiurri astekaritik datorkit, baina orokorretik abiatuko naiz.

EAJ ETA EH BILDUREN ARTEKO LEHIA

Orokorrean, eta euskal herrian bi alder-diok gehiengo izanik lehia bizian dabil-

tza, zenbaitetan dialektikatik haratago joa-ten delarik, batik bat Donostian udale-txean zein Foru Aldundietarako hauta-gaien artean. Bestetik, normala da. Zen-bait eztabaidatan Diputazioan pil-pilean dagoen Bidegi auzia aurpegiaratu dio Bil-duk EAJri eta, nire irudiko, EAJkoak ez du jakin horri aurre egiten. Gehientsue-netan Bilduri hauteskundekeria igorri dio; baina hori ez da kontua. Ustelkeria-ren usaina bera ere herritarrek ezin dute jasan eta, EAJk eman beharko luke azal-pen bat.

ITUNAK

Kazetarien galdera: Prest al zaude EH Bildurekin itunak egiteko edota prest al zaudete Donostiako Udaletik, esaterako, Bildu kanporatzeko itunak garatzera? Ez dut ulertzen normaltasun eta errespetu falta hori. Gehiengo ateratzen duenak beste alderdiekin hitz egin beharko du ea gobernagarritasuna lortzen duen. Eta lortzen badu, aurrera. Proiektuak aurre-ra ateratzeko batekin eta bestearekin hitz egin beharko du. Podemosi ere galdera maltzurak egiten zaizkio. Nire ustez, Pode-mos Foru Aldundian sartzen bada egin behar duena da Gobernuan sartu ez bai-na gehien bozkaturia izan denarekin pro-gramak kontrajarri. Eta ahal bada ados-tasun batzuetara iritsi. Hor dugu Anda-luziako kasua. Erraza da bestearengan gure gabeziak proiektatzea baina Dia-zek jakingo du zergatik aurreratu zituen hauteskundeak. Oposizioak eskubide osoa du marra gorriak uste duen lekuan jartzeko.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Kanpainan entzun diot Asier Arraiz EH Bilduk defendatzen duela soilik eraba-kitzeko eskubidea. Nire irudiko ez da egia. Badira beste alderdi batzuk ere eskubi-de hori defendatzen dutenak, eskubide demokratikoa baita. Ez dakit, beste behin eskubide demokratikoa independentzia-rekin nahasten ari ez ote garen. Baina Oiarbidek, ekimen hori martxan jarri zue-netariko bat, garbi esan dio eskubide hau ezin daitekeela tresna ideologiko gisa era-bili. Horra hor arriskua! Nire ustez, EH Bilduk ikasi beharko du Euskal Herrian ere indar berriak badatozela, gero eta anitzagoa dela eta aniztasun hori kude-atzen ikasi behar duela. Indarrak meta-tu egin behar direla eta ez sakabanatu.

BESARKADA

Manuela Carmena Madrilgo alkatetzako hautagaiari lerrootatik besarkada bat eta zorte on. Ezaguna dut eta benetan ema-kume ona derizot, frankismoaren erre-presioa jasandakoaren bermearrekin.

Eta nola, ez, Urnieta eta Andoainen ere aniztasuna islatu dadila denen arte-an. Herri justu bat egitea errazagoa bai-ta. Urnietako kasuan ez dut uste anizta-sun gehiegi emango denik. Bi zianen dira nagusi baina proiektuak eta asmoak metatuz Urnieta pentsaeraz anitza, jus-tuagoa, ongizate hobetagoa, laikoa eta aurrerakoiagoa izatea lor dezakete.

Maiatzeko azken asteburuan Gazte Festak Urnietan

Poxta Zahar taldearen deia gazteek parte har dezaten

Uda gerturatu ahala festa giroa usaintzen da Urnietan. Gazte festak gainean dira eta Udalak eta Poxta Zahar gazte elkarteak egitarau oparoa prestatu dute. Gazte elkarteak dagoeneko herri-ko gazteei festetan modu akti-boan parte hartzera dei egin die, "joan zaitezte armairutik ateratzen mahoizko galtzak, zapia eta alkandora txuria armairu-tik Gazte Festak bertan ditugu eta!". Maiatzaren 30ean festa-zaleak, beraz, arrantzalez jan-tzita ikusi nahi dituzte. Idiazabal kalean bazkaria egingo dute eta bertan parte hartzeko ezin-bestekoa da izena ematea. Epea maiatzaren 26an amaituko da. Datorren asteko asteartera bitarte, beraz, herri bazkarira-ko txartelak salgai egongo dira 12 euroko prezioan Xauxar tabernan eta Guria pentsio-kafetegian".

Poxta Zahar taldeak hitzor-du hauekin kartela osatu du:



Gazte jaien azken ekitaldia paella jatea izango da, Poxta Zaharrek antolatuta.

MAIATZAK 29, OSTIRALA

17:00 Egokitutako futbol maratonia Pausoka el-kartearen alde, Ega-pen.

19:30 Piknik afaria Idiazabal kalean. 2 euroko prezioan, bertan or-dainduta.

20:00 Traga lehiaketa, izen ematea bertan.

22:00 Kontzertua: Sardeska, Auskan, DJ Amnesia.

MAIATZAK 30, LARUNBATA

12:00 Kantoitik poteoa gupil gainean.

14:00 Bazkaria Idiazabal kale-an. Txartelak eskuraga-rra, maiatzaren 26ra arte: Xauxar, Guria.

EKAINAK 6, LARUNBATA

12:00 Paella lehiaketa.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Ucachan, Argentinan (VII)

abiatu ginen etxalde edo rantxora. Euri jasa handia egin zen eta asfalto gabe-ko bidean ur putzu handiak zeuden, eta momentutik momentura Leonek esaten zuen: "Ha llovido cualquier cantidad".

Bi anaia ezkontuta eta beste bat sol-tero zeuden. Bi etxeetan bizi ziren. Ezkon bikote bat eta solteroa batean eta bes-te senar-emazteak bestean. Denei dei-tu eta batean elkartu ginen. Hura zen hitz-aspertua izan genuena. Bururatu zitzaigun sukaldean bertan meza eman behar genuela, gertaera hura ospatze-ko eta han gogoratu ginen guraso, Kon-txita eta denetaz eta gero afaldu Pan-paren lurralde zabal eta handiaren erdian. Erabaki genuen Anjelen anaia-ri deitzea Buenos Airesera, etortzeko esanez.

Hurrengo goizean herrira jaitsi ginen. Euskaldun bat presentatu ziguten: Emi-lío Legaz, Etxalarkoa. Komertzio bat zeu-kan. Leon eta Joxek esan zioten: "Emi-lío, jantzi itzazu goitik beheraino!" "¿De qué calidad?", galdetu zuen; "de la mejor" izan zen erantzuna. Barruko eta kanpoko arropa, zapata eta guzti; eta nik esan nien: "Eskalek ez gaituk, eh!

Kontuk ongi aterata etorri gaituk". Haien erantzuna, berri: "Gure odole-ko lehendabizikoa haiz gu ikustera etorri haizena; bada isil-isilik egon hadi eta guk esandakoa egin ezak!"

Eta nik jolas bat bezala hasi nuen bidaia hark pisu handia zuela kontu-ratzen hasi nintzen. Padre Elorza dei-tzen zidaten, nire hirugarren abizena eta lehendabizikoa haiena. Herriko beren pertsona ezagun guztiengana era-man ninduten: apaiza, alkate, maisu, bankebeko-nagusi... eta, batez ere, herri hartan ziren euskaldun guztiengana. Gauero afari eder bat (Asado) egiten genuen eta etxera bueltatzen ginen ordu txikietan. Joan berrikan morroi egon ziren familiak ziren batzuk: Ansorena (nafa-rra), Irastortza Irungoa eta abar. Hala-ko batean esan nion Leon: "gu, batez ere, zuekin egotera etorri gaituk."

"Gu ere horixe pentsatzen egon gai-tuk eta afari batera inbitatuko dizkia-gu denak eta horrela inorekin gaizki gelditu gabe denekikoa egin eta asma-tuko diagu..."

Eta horrela egin zen. Baina horren azalpena hurrengoan egingo det.



AIURRI [Gehigarri berezia]

Udal Hauteskundeak 2015

#M24 Urnieta

Elkarrizketak alkategaiei



UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Escaños en Blanco Urnietan, hautagaitza bakarra Gipuzkoan

Susmagarria omen da zuen alderdiaren hautagaitza Urnietan, kezka hori azaldu dute hautagai politiko batzuek kanpaina honetan.

Jose Luis de Zubicaray. Gure hautagaitza susmagarria dela diotenei, gauza bat: Herriak eserleku bat hutsik uzten badi, gure aldeko botoa legitimoki jasoz, aurreko lau urteetan egon diren ordezkariak herriarrak konbentzitu ez dituztelako izango da. Urnietarrek nahi dituzten gauzak egin ez dituztelako.

Urrutira joan gabe, Daniel Urnietako herritar bat da eta bere osasun arazoak direla medio, pentsioa kobratzeko ikaragarri kostatzen zaio Kutxako bulegora gerturatzea. Egun hauetan igogailuaz edo eskilara mekanikoez hitz egiten zizun, jarri behar zituztela esan ziotela baina antza alkateak dirurik ez dagoela dio. Ondorioz, bere ohiturak aldatu behar izan ditu. Ezin du mezetara joan, bere etxabetik ezin du gehiegi urrundu nekatu egiten delako. Jende gehiagok azaldu digu atsegabe hori.

Beraz, alderdi politikoei gehiengo osoa hainbeste interesatzen bazaie, lehenik eta behin herritarren beharrez kezkatu daitezela.

Nortzuk osatzen duzue Escaños en Blanco Aulki Zuriko hautagaitza? Aurkez zaitezte, mesedez.

J.L.Z. Jose Luis de Zubicaray naiz, 40 urtekoa eta gaur egun langabezian nago. Nire alderdiko nazioarteko ataleko arduraduna naiz, izan ere gure erdua jarraituz alderdi berriak



Jose Luis de Zubicaray bizkaitarra eta Daniel Lizarralde urnietarra.

sortzen ari dira Europan zehar. Urnietan aurkezten gara herrikide batek hala eskatu digulako.

Daniel Lizarralde. 39 urte ditut eta erizain laguntzailea naiz lanbidez. Aulki Zuriak alderdiarekin harremanetan jarri nintzen, haien berri izan eta euren ideiek nirearekin bat egiten dutelako.

Bitxia da. Botoa eskatzen duzue baina gero ez duzue zinegotzi akta sinatuko.

J.L.Z. Guk ez dugu botoa eska-

zen. Ordezkatua sentitzen ez den herritarri tresna bat eskaintzen diogu. Herritar bezala parte hartu nahi dugu, inork ez ordezkatu gabe parte hartu nahiko genuke. Zer bilatzen dugu horrekin? Eserleku hutsa uztean, hara doazen politikariek ikusi beharko dute herritar talde bat haserre dagoela. Horrek politikoari pentsarazi egin beharko lioke: batetik, betiko moduan jarraitzearen beldurra aktibatzea. Bestetik, politiko horri zertan hobetu behar duen pentsarazi behar dio.

Horrela esanda, gainerako hautagaitza guztiak gauza bera balira bezala adierazten ari zarete.

J.L.Z. Herritarrek ordezkatzeko dituzten alderdiak dira, guk ordezkariarik ez dutenak ordezkatzeko ditugu.

Hamairu zinegotzi dituen tamaina txikiko herri batean zinegotzi bat gutxiagorekin lanean aritzea ez al da kontraesankorra?

J.L.Z. Hamabi zinegotzietatik %8 gehiago lan egin beharko lukete. Eta lau urteetan garapen bat izan beharko lukete %8 gutxiago lan egiteko.

Nola hartu zaituzte Urnietak? Exotikoa izan daiteke zuen proposamena. Beharbada Europarekiko haserre bideratu daitezke zuena bezalako alderdien bitartez baina Udal hauteskundeetan zailagoa da.

J.L.Z. Guk ez dugu haserrea eraren botoa bilatzen. Aldaketa-rako tresna bat da gure botoa. Gure alderdiaren zaletu batzuk haserretuta egon daitezke; neu adibidez ez nago inorekin haserre. Kontua da ez nauela inork ordezkatzeko.

Kontrol politikorako tresna izan nahiko genuke, Urnietan eta estatuko gainerako erakunde estatuetan. Gaur egungo hauteskunde sistemaren arabera boto zuria zenbatu egiten da, baina ez da ordezkarietarako kontuan hartzen. Gaur egun boto zuria alderdi nagusien mesederako da. Gaur egun politikoak kontrolatzeko herritarrek ez dute tresna eraginkorrik.

Egun hauetan gainerako alder-

di politikoei herriko hainbat egitasmoez galderak egingo dizkiegu. Zuek zer eskaintzen diezue urnietarrei?

J.L.Z. Demokrazian parte hartu nahi duten herrikideei aukera bat eman nahi diegu. Boto nuloa eta abstentzioa estatistika hutsa dira, boto zuria alderdi nagusien mesederako da. Zer da geratzen zaiguna? Manifestazioak? Edukiontzia erretzea? Gizarte zibilizatu batean ez dugu hori nahi. Ordezkatuak sentitzen ez direnei aukera bat eman nahi diegu, klase politikoari honako mezua helarazteko: Ez nauzue ordezkatzeko, eta zuen jokabidean eboluzionatzea eskatzen dizuet.

Zinegotzi bat izateko adina boto lortuko bazenu, zeintzuk izango dira Aulki Zuriak alderdiaren hurrengo pausoak?

J.L.Z. Guk ez dugu deus egingo. Eserlekua hutsik geratuko da. Lau urteetan alderdi bezala hazkundera izatea nahiko genuke. Gero beharbada, beste zenbait herrietan gertatu delako, herri mailako hautes-zerrendak osatzen lagunduko genieke urnietar horiei.

Baina demagun kargua lortzen duzuela. Kirol, kultura, gizarte mailan..., ez duzue proposamenik egiten?

J.L.Z. Ez. Alor bakoitzaz dagoen zinegotzia ardura dadila. Lan hori eurek egin dezatela eskatzen dugu.

Baina zehazki zerbait eskatzen duzue, edo ez?

J.L.Z. Guk eskatzen dugun bakarra boto zuria konputatzea eta ordezkarietza izatea da. Daukagun modu bakarra kargua lortu eta ez hartzea da.

Eta botoak erakartzeko ez al da erakargarriagoa Daniel Lizarralde urnietarra lehen postuan jarzea?

J.L.Z. Bai, horrela izan daiteke. Ados nago. Alderdi bezala zintzo jokatu nahi dugu. Guk ez dugu aspaldiko harremana Danielenkin. Gure proiektua erraz zainda daiteke, kargua hartzen den unetik. Ezin dugu arrisku hori hartu.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Consuelo Frutos, PSE-EEko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzen duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Consuelo Frutos. Hauteskunde programan errepikatu duguna: Elkarrekin Urnietaren alde. Gure herria itsasontzi batekin alderatuko nuke; eta denok norabide berean arraun egiten badugu portura iristea lortuko dugu.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik mar txan jarriko zenukeen bat aukeratu.

C.F. Lehenik eta behin eskaile-ra mekanikoak jarriko nituzke. Aztertu eta galdetu egingo nuke, herriguneko toki ezberdinetan ezartzeko. Eskailerak eta igogailuak ezartzeko proposamen zehatzak ikus daitezke gure programan, hala nola, Arantzubin, Aldapetan.

San Juan plaza eta Etxeberrieta plaza lotzeko baztertu zen egitasmo hori berreskuratuko beharko litzateke. Azterketa sakona egin behar da.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al ditu agintaldi berrian?

C.F. Beharrezkoa da, eskualde bakarra gara agentziarik ez duena. Hauteskundearen atarian erabili da gai hau, baina maiatzaren 25etik aurrera gaiari heldu behar zaio. Eta horretan alderdi politiko guztiok bat egin behar dugu, gutxieneko akordioetatik abiatuta. Izaera juridikoak denon adostasuna beharko du, eta noski eskubide berdinekin ordezkari izan behar dute eskualdeko herri guztiak. Baita Andoainek ere.

Enpleguari dagokionez, Udalak lanpostuak sortu behar ditu. Dirua badago, eta lana badago mendiak garbitzen, kaleak txukuntzen,.... Gure proposamena gerarazteko PPren gobernuko araudi bat aitzakiazat jartzen digute. Baina ikusi dugu PPren aginduetara darduen udalerririk ere herri barruko kontratazioa sustatzen ari direla. Udaletik gehiago egin behar da, eta garapen agentziak balio erantsia emango dio.



Consuelo Frutos zinegotzi lanetan aritu da, eta oraingoan hautagai nagusia da.

Gizarte Zerbitzuen beharra premiazkoa da bizi dugun garai hauetan. Udaleko zein beste alor edo atalaz kezkatzen zaitu gehien?

C.F. Hiri Antolamendurako plana garatu behar da. Etxebizitzaren premia larria da, eta alokairuzko etxebizitza sozialak sustatu beharko lirateke. Adibidez, Akan eta Errekalde kaleetako etxebizitza. Gazteen eskakizuna da, ez ditzagun beste herrietara joatera bultzatu.

Eztabaida politikoak egon diren arren adostasun politiko handia egon da agintaldi honetan. Zentzuzkoak da gobernuaren meritua eta oposizioaren meritua?

C.F. Hiru zinegotzirekin, lehen egunetik gure programa gainerako alderdien esku jarri genuen. Gure proposamenak mahai gainean jarri genituen. Ondo hasi zen agintaldia, agintaldi planaren eta Udal aurrekontuaren onarpenarekin.

Gerora gure proposamenak eta agintaldi plana ez ziren erabat bete. Diferentziak sortu dira, baina kontsentsuz erabaki dira aztergai asko.

Nolanahi ere, gobernu talde ahul samarra izan da. Lidertza falta nabaritu dugu eta lantaldea eskas geratu zaie.

Demagun kaletik zoazela eta "denak igualak zarete!" aurpegiatzen dizutela. Zer erantzun zenuke?

C.F. Oso erraza da hori esatea. Ez gara berdinak, eta denok berdin epaitzen gaituzte. Guk Urnietan urte asko daramagu lanean, burua tente daramagu eta eskuak garbi ditugu. Eman diezagutela aukera, gobernuan ere berdin jokatuko dugulako. Askatasunik gabe eta bizkartzainekin urteak eman ditugu, hori inork gutxiago antzatu luke. Urnietako sozialisten artean politikarako bokazioa dugu.

Nor zara? Nola definituko zenuke zure burua? Zertaz zaudere bereziki harro? Eta ahalduz ba al duzu?

C.F. 53 urte ditut, horietatik 48 Urnietan. Umila naiz, gertuko eta apala. Jendea entzutea gogoko dut. Edozein dela, haien egoera entzutea gogoko dut. Beharbada ezin diot arazo konpondu, baina entzute

hutsa askotan lagungarri izaten da. Borrokalaria naiz, eta nahi dudana lortzeko borroka egiten dut.

Askotan kontatzen dizkidaten gauzak gehiegi eragiten naute, hori izan daiteke nire ahuldadeetakoa.

Zein izan da zure misioa amaitzen ari den agintaldi honetan?

C.F. Politikan hasi nintzenean ezer gutxi nekien. Ikasketa eta formakuntza prozesua izan da nirea hainbat batzorde eta bileretan. Alderdiko bozeramaileak laguntzea eta ekarpenak egitea izan da nire zeregina orain arte.

Bosgarren edukiontzirekin aurrekusi zenuena baina gutxiago birziklatzen da. Zein ikasgai ateratu daiteke agintaldiko esperientzia honetatik datozen urteetan gehiago birziklatzeko?

C.F. Hasteko eta behin alderdi politiko guztiak zoriondu beharko genituzkeela iruditzen zait. Agintaldi hasieran gai honi dagokionez denon adostasuna beharrezko zela proposatu genuen. Bilduri aitortu behar zaio esfortzu handi bat egin zuela bilketa sistema adostua martxan jartzeko garaian. Eskerrak eman behar zaizkio. Gai honekin kalean borroka ideologikoa egitea saihestu behar zen, eta lortu dugulakoan gaude.

Birziklatzeko indize handi samarrak jarri genituen, bete ez direnak. Mantso doaz prozesu hauek, eta horrelako prozesuetan erritmo horiek saihestea kosta egiten da.

Sentsibilizazio lan handiagoa egiten jarraitu beharko dugu, eta birziklatzen duena sarritu.

Aulki zuriak alderdia Urnietan bakarrik aurkeztuko da. Zinegotzi postua lortuz gero hutsik utzi behar dutela diote. Zein iritzi duzu?

C.F. Ez dakit erantzuna politikoki zuzena den. Susmagarria iruditzen zaigu, baina horretan utziko dugu. Gipuzkoa osoan hemen bakarrik aurkeztuko dira...

Kontura daitezela urnietarrak zeinen egoera bitxia sor

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa:

XABIER LETE.

Bere aldetik babesu eta gertutasun handia jaso nuen.

Urnietako txoko bat:

BERRASOETA.

Naturgune hori erakargarria da niretzat, pasean ibiltzeko aproposa.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

SAN SILVESTRE LASTERKETA.

Bi edizioetan hartu dut parte, herrikoia da oso.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

CARITAS.

Garrantzia handikoa eta isilpekoa da egiten ari direna.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:

IÑAKI MENDIZABAL.

Burura etorri zaidan lehena ANVko zinegotzia izan da, 2007-2011. agintaldikoa. Orduan eta geroztik ere oso gertuko pertsona izan da.

daitekeen Aulki Zuriak alderdiak zinegotzi bat lortzen bado. Eserlekuari muzin egiten badiote, gainerako alderdiren batek sei zinegotzi lortuta gehiago osoa izan dezake alkatearen kalitatezko botoa erabiliz.

Eserlekua hutsik uztea ulergaitza egiten zaigu. Etor daitezela hona eta euren ideien alde borroka dezaten. Ahotsa eta bozka izan dezatela.

Zergatik eman behar zaizu zuri botoa, eta ez besteei?

C.F. Gainerako bi alderdi nagusiek azken agintaldietan boterean zer egin dezaketean erakutsi dute. Urnietarrei guran konfiantza izatea eskatuko nieke, gure programan agertzen diren egitasmo guztiak gara daitezkeela ikusiko dutelako. Aukera hori eduki nahiko nuke. Gure programa oso ondo landu dugu, eta bere osotasunean aurrera eraman daiteke.

Ixiar Martiarena, EH Bilduko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzen duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Ixiar Martiarena. Parte hartzearen hutsunea nabaritu dugu legealdian zehar; horregatik, hori izango da gehien nabarmenduko dugun ideia. Ez da batean egiten den gauza inprobisatua, lanketa handia eskatzen baitu metodologia aldetik. Beraz, erronka hor dagoela iruditzen zait.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik mar txan jarriko zenukeen bat aukeratu.

I.M: Ikastolaren eraikin berria beharrezkoa da gazteek ikasketak hemen jarraitzeko. Hori izango da proiektu potoloenetakoa.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al du agintaldi berrian?

I.M: Behar-beharrezkoa da, zenbait gauza eskualde mailan lantzea errazagoa delako. Herri batek beti dauka besteak ez duen zerbait: turismo aldetik, industria aldetik... Horrelako gauzak eskualde mailan egin behar dira, herri bakoitzak bere aldetik egitea oso zaila delako.

Legegintzaldi hasieran beharrezkoa zela adostu genuenez, Mikel Pagola zen eskualde mailako bileretara joateko arduraduna. Hala ere, tartean egondako jokoren baten ondorioz, zintzilik geratu da eta bileretara joateari utzi dio. Nolanahi ere, legealdi honetan egingo dela uste dut.

Hezkuntzarekin lotutako eraikin berri hori ikusiko dugu datozen lau urteetan?

I.M: Arazoa betikoa da: dirua. Euskal gobernuak eta delegazioak dirua jarri beharko dute, eta inguru hori berritzeko lanketa ere egin beharko da. Agian ez da lau urte hauetan egingo, baina bidea egiten hasiko gara behintzat.

Gizarte zerbitzuen alorra garrantzia handikoa da. Hori agerikoa izanik, Udaleko zein beste atalak kezkatzen zaitu gehien?



Ixiar Martiarena EH Bilduko hautagaia.

I.M: Lan egiteko moduak kezkatzen nau. Urnietan elkarte asko daude lanean eta Udalak ateak ireki eta babestu beharrean, mugak eta trabak jarri dizkie askotan. Horregatik, haserrea nabaritu dudanez, hori aldatzea nahiko nuke.

Adostasun politiko handia nabarmendu da Urnietan. Nola banatzen dituzu meritu horiek?

I.M: Udaletxean sartutakoan, politikaz gutxi genekien. Ez genuen trabak jartzera joan nahi, ondorioz, ez gara zuzenean proposamenei aurka egitera joan. Hala ere, zenbait kontutan kexatu eta haserretu gara, beraiek proposatutakoak ez dituztelako aurrera eramanez. Izan ere, akordio batzuetara iritsi arren, ez ziren aurrera eramanez. Gainera, azken hilabeteetan proiektuak dituztela dirudi.

Demagun kaletik zoazela eta "denak igualak zarete!" aurpegiatzen dizutela. Zer erantzun zenuke?

I.M: Horrelakoetan ezer gutxi. Zerbait aldatu nahi bada, pertsonak aldatzen dutela argi daukat. Denok jarri behar dugu lanean; beraz, ez naiz inori

zer pentsatu behar duen esatera joango. Bakoitzak bere esperientziak ditu eta horren baitan jokatu du; baina zerbait aldatu nahi bada, lanean hasteko esango nioke.

Nor zara? Nola definitiko zenuke zure burua? Zertaz zaudere bereziki harro? Eta ahuldaderik baduzu?

I.M: Kaleko pertsona arrunta naiz. Lotsatia naiz, eta zaila egiten zait ezezagunekin jardutea. Edonola ere, entzuten dakidala uste dut, baina izaera gogorrekoa naizenez, haserretzen naizenez ez naiz isilik geratzen.

Orain arte ez ditut alderdi politikoak begi onez ikusi, erabat itxita zeudelako. Gainera, alderdiaren arabera epaitzen dela uste nuen eta guztiz aurka egon naiz. Orain, ordea, garai bateko egoerak eta ilegalizazioek bultzatuta EH Bildun amaitu dut. Gustura nago, oso jende ezberdina elkartu garelako eta gai izan garelako gure eztabaidak aberasgarriak izatea lortzeko.

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

I.M: Olatu batean sartu ginen udaletxera eta ez genuen espero bost zinegotzi lortzerik. Nire misioa kontrolatzea edota inork trapukeririk egin ez zezan ziurtatzea izan da; oposizio bezala, kontrol hori eman behar genuela uste baikenuen. Proposamen asko egin dugu; batzuetan kasu egin digute, eta beste batzuetan ez. Dena den, lau urte hauetan zehar asko ikasi dugu. Ideia batzuekin sartu nintzen udaletxera, baina ustekabeak ere hartu ditut; eztabaida gogorak izaten zirela uste nuen, baina dirudienez, hau ez da horretarako tokia.

Zerrendako lehenengo bi pertsonak beteranoak zarete. EH Bilduko hautes-zerrendetan bakkarenetakoa da kasu hori. Gazteagoa dena ez erakartzeko argumentu bat izan daitekeela iruditzen al zaizu?

I.M: Lau urte hauen ostean, jende gehiago sartuko zela eta gure lana eginda utziko genuela uste nuen. Hala ere, zailtasunak izan ditugu taldea osatzeko. Batzarrak eta programa egin ostean, zerrendarako hautagaien proposamenak egiteko ordua iritsi zen. Gazteei beldurra ematen die mundu honetan hasteak eta beti izaten dute aitzakiaren bat zerrendan egoteari ezetz esateko. Ulertzekoa da beraien jarrera, baina gure ustez, horiek egin behar dute aurrerako bidea. Azkenean, gure artean animatuz eta hainbat gazteren indarra eta ikuspegi berriaz baliatuz, talde polita osatu dugula uste dut.

Bosgarren edukiontziaekin aurreikusitakoa baina gutxiago birziklatu da. Zein ikasgai aterra daiteke esperientzia honetatik hurrengo legealdian gehiago birziklatzeko?

I.M: Bazter guztietan birziklapena gizarteko behar bezala ikusi ordez, politikoki zaborra botatzeko erabili da. Inork ez du zergen beharra zalantzan jartzen, bestela ezingo genukelako funtzionatu. Zaborrarena, ordea, zalantzan jartzen da. Urnietan gerra hori haus-tetu lortu genuen. Erraustegien aurkako Arnasa mugimendua-ren bidez, errausketarik ez ge-

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa: LURDES IRIONDO.

Ezinbesteko erreferentzia da herri mailan, besteak beste, antzerkigintzan eta haurrekin.

Urnietako txoko bat: AZKORTE.

Inguru hura gogoko dut, bertatik ikusten den paisaiarengatik.

Urte osoko festen artean bat aukeratu: SANMIELAK.

Egunean zehar egiten diren ospakizunak bereziki.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat: POXTA ZAHAR.

Gazteak azken urteotan lan handia eta beharrezkoa egiten ari dira.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat: HERME GONZALEZ.

Ikuspegi politiko oso ezberdinak izan arren, errespetuz eta giro onean aritu garelako. Ez nuen espero.

nuela ikusi genuen. Hala, eztabaida horretatik kanpo geratzea lortu genuen.

Bosgarren adukiontzia proposatu zuten, baina guk helburu batzuk jarri genituen mahai gainean. Honela, %65 birziklatzera iristea adostu genuen. Zifra horretara iritsi nahi dugula argi daukagu; beraz, horretarako neurriak hartu beharko ditugu.

Aulki zuriak alderdia Urnietan bakarrik aurkeztu da Gipuzkoa osoan. Zinegotzi postua lortuz gero, hutsik utziko dutela diote. Zein da zure iritzia?

I.M: Ez dakit zeintzuk diren eta zuri bozkatzeak ez dakit zentzurik baduen: benetan horrela ikusten dutelako edo azpijokoren bat dutelako. Zalantzan dagoen jendea edo bozkatzen ez duen jendea beti egon ohi da, baina proposamenik gabeko ekimen hauei susmo txarra hartzen diet.

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Mikel Pagola, EAJ-PNVko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzen esaldi, eslogan edo mezua?

Mikel Pagola: "Jarraituko dugu", azken urteetan egindako politika guztiak egiten jarraitu nahi dugulako. Beraz, hori izango da gehien erabiliko dugun eslogana.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik mar txan jarriko zenukeen bat aukeratu.

M.P.: Ez da erraza bat aukeratzea, baina aurtengo legealdian egin gabe utzi ditugun inbertsio handietako bat aipatuko nuke: kiroldegiaren eraberritzea. Bigarren bat aipatzeko, irisgarritasuna bermatzeko eta herriko altuera ezberdinak batzeko balioko duen igo-gailua.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al du agintaldi berrian?

M.P.: Lehendabizi agentzia sortuko dugu sei herriren artean. Beharrezkoa da, herriok baka-rik zerbitzu askori ezin diegula aurre egin. Horregatik, elkarrekin funtzionatu behar dugu seiak elkartzen gaituen proiektu amankomun batean. Hori da gure erronka nagusia.

Hezkuntzarekin lotutako eraikin berri hori ikusiko dugu datozen lau urteetan?

M.P.: Baietz esango nuke. Eusko Jaurlaritzak bere inbertsio planetan 2018rako Egaperen DBHko zentroa aipatzea lortu dugu legealdi honetan. Udalak bere aldetik hainbat lan egin beharko du, eta amaituta ez badaude ere, obrak hasita egongo dira legealdiaren barruan.

Gizarte Zerbitzuen alorra garrantzia handikoa da. Hori agerikoa izanik, Udaleko zein beste atal-ak kezkatzen zaitu gehien?

M.P.: Ez nuke bat nabarmendu, guztiak baizik. Udalean funtzionatzeko modu berri bat garatu dugu, programa askok sail bati soilik eragin ordez, guztiei eragiten dietela ikusi dugulako. Horrela, departa-



Mikel Pagolak alkatetzan jarraitzeko hautagaizta aurkeztu du.

mentuek elkarrekin lan egiteko ohitura hartu dute eta guztien arteko koordinazioa hobetzea eta herritarrei zerbitzu egokioa ematea azpimarratuko nituzke.

Adostasun politiko handia nabarmendu da Urnietan. Nola banatzen dituzu meritu horiek?

M.P.: Meritua guztiona da. Gobernu taldean geudeno, plenoko ordezkariak ikusita, akordio eta adostasun horien bila joatea egokitu zaigu. Guk egindako planteamenduen aurrean erantzun baikorra jaso dugu oposizioan zeuden alderdien aldetik. Guztiok herriaren alde lan egin dugu; beraz, meritua, guztiona da: proposatzaile eta proposamenak onartu dituztenena.

Demagun kaletik zoazela eta "denak igualak zarete!" aurpegiatzen dituzela. Zer erantzun zenuke?

M.P.: Errespetatu egin beharko nuke herritar batek hori pentsatzea, baina topiko bezala ikusten dut. Udaletxean hiru alderdi ezberdinetako ordezkariak egon gara eta akordio as-

ko lortu ditugu bakoitzak bere ideiak garbi edukita. Beraz, guztiok zaku berean sartzea ezezagutza politiko baten isla da izango litzateke.

Nor zara? Nola definitiko zenuke zure burua? Zertaz zaudere bereziki harro? Eta ahuldaderik baduzu?

M.P.: Mikel Pagola Urnietako pertsona oso arrunta da; familia arrunta osatu duena eta Urnietan jaio eta bizitzeagatik, herrian oso gustura sentitzen dena. Urnietaren alde lan egiteko langile konprometitua naiz, baina udaletxeko lan hauek amaitzen direnean aurreko lanera ere oso gustura itzuliko naiz. Oso burugogorra eta tematia naiz, eta gauza bat buruan sartzen zaidanean, hori egiten saiatzen naiz. Bestalde, aurreko urteetan udaletxean zegoen klima deserosoa amaitzen ahalegintzeaz harro nago.

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

M.P.: Udaletxean lanean gauden politikari eta teknikari guztioi herriaren alde egiteko

lerro berean jartzea eta bide hori markatzea.

Zenbateraino eragingo dizu botereak ekar dezakeen desgasteak?

M.P.: Lau urte soilik egon gara agintean, beraz, ez dakit horrek zenbaterainoko nekea suposatuko duen. Era berean, lau urteetan erakutsi dugu zertarako ari garen lanean, zer egiteko gai garen eta herritarrek ditugula ardatz. Horrek sinesgarritasuna ematen digu.

Bosgarren edukiontziaekin aurreikusitakoa baina gutxiago birziklatu da. Zein ikasgai aterateke esperientzia honetatik hurrengo legealdian gehiago birziklatzeko?

M.P.: Ez dugu korrika egin behar. European birziklapen tasa altuenak lortu dituzten herrietan, 30 urteko kultura luze baten ondorioz lortu dute emaitza horietara iristea. Guk bi urteko ibilbidea dugu eta dagoeneko %45 inguruan gabiltz.

Gure helburua gehiagora iristea da, %60-65 ingurura. Horretarako, neurriak hartu beharko dira eta prest gaude. Dena den, ez dakit guztiak komenigarriak izango diren ala ez: birziklatzen ez dutenei zigortzea, edukiontzien irekiera kontrolatzea...

Hau lasterketa bat dela garbi dugu, baina ez da 100 metroko lasterketa. Iraupen luze lasterketa da eta gauza bakoitzari bere denbora eman behar zaio.

Aulki zuriak alderdia Urnietan bakarrik aurkeztu da Gipuzkoa osoan. Zinegotzi postua lortuz gero, hutsik utziko dutela dio. Zein da zure iritzia?

M.P.: Errespetatu egin behar da, talde bakoitzak bere ideologia eta programa dituelako. Hala ere, alderdi politiko honetako kideek zinegotzi kargua ez hartzea erabakitzen badute, galdetuko nieke sistemaren aurka badaude, ez ote den egoikiagoa sistema aldatzen saiatzea protesta egitea baino.

Zergatik eman behar zaizu zuri botoa?

M.P.: Galdera hori erantzutea ez zait asko gustatzen. Botoa ez dut niretzat eskatzen, EAJK

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa:

LURDES IRIONDO ETA XABIER LETA.

Herrigintzan lan egin zutelako, herriaren alde lan egiteko gogoia erakutsi zigitelako, eta hori delako guk egin behar duguna. Lurdes da urnietarra, baina biek binomio bat osatzen zuten.

Urnietako txoko bat:

SAN JUAN PLAZA.

Lehen ermitaren aurrealdeagatik egiten nuen apustu, baina urte hauetan plazak izandako aldaketekin, gero eta politagoa iruditzen zait.

Festen artean bat aukeratu:

SANMIELAK.

Orain arte gehien bizitza egokitu zaizkidalako.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

UKE ETA BOSKO ANITZ.

Guztiei eskerrak ematea dago gokit lehenbizi. Mugitzen duen jendearengatik eta duen oihartzunarengatik, nabarmenena UKE izango litzateke. Bestalde, isilean herriko gazteekin lan handia egiten duen taldea da Bosko Anitz aisialdi taldea.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:

XABIER YURRAMENDI.

Berarekin izandako harremanarengatik eta lan ordu ugariarengatik nabarmenduko nuke.

aurkezten duen hautagai taldearentzat baizik. Talde gaztea gara eta guztiok helburu bera dugu: Urnieta maite dugu eta herriaren alde lan egiteko prest gaude. Hautagaizta osatzeko, datozen lau urteetan egon daitezkeen erronka nagusiak hartu ditugu kontuan, eta horiei erantzuteko perfil egokiak aukeratu ditugu. Batzuk ez dira afiliatuak, independientek ere baditugu; baina guztiok gogo handiz gaudenez, talde sendoa osatzen dugu herriaren alde lan egiteko.

Udal hautagaien arteko debatea Bastero kulturgunean

Astelen iluntzean Aiurri astekariak Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan alkate izateko aukera gehien duten hiru hautagaiak bildu zituen, elkarren arteko debaterako. **Ana Carrere** EH Bilduko hautagaia, **Maider Lainez** PSE-EEko hautagaia eta **Marijose Izagirre** EAJ-PNVko hautagaia 120 ikusleren aurrean eseri ziren, **Jon Ander Ubeda** kazetariak ipinitako galderei erantzuteko prest. Lezioa ondo ikasita iritsi ziren hiru hautagaiak, bakoitzak bere argudioak eskaintzeko aukera ondo baliatu baitzuen. Kanpaina hasteko egun gutxi falta zirenean, hiru alderdien oniritziarekin adostu zen debatea egitea eta baita debateko aztergaiak ere. Aiurrik herritarren aurrean ipini nahi zituen alkategaiak, eurek euren hitzarekin Andoain herriaz eta politikaz hitz egin zezaten. Euskaraz, ezin bestela. Hiru minutuko txandatan Udalaren egoera ekonomiko txarra, akordio falta udalgintzan, azpiegitura sarea, elkarbizitza eta hondakinen kudeaketari buruzko galderak egin zitzaizkien. Horieta hiru gaietan, gainera, hiru hautagaiek elkarren arteko eztabaida aberasteko helburuarekin errepikarako aukera izan zuten. Oro har, hautagai



Maider Lainez PSE-EEko hautagaia, Ana Carrere EH Bilduko hautagaia, eta Marijose Izagirre EAJ-PNVko hautagaia debatarekin hasiera eman aurretik.

bakoitzak argudioak azaltzeko alde aurretik ezarritako denbora tartea errespetatu zituen.

"Zuen hautagaitza defenda ezazue. Zure aldekoak ez direnak ere konbentzitzeko aukera balia ezazue. Zergatik izan behar duzu alkate?". Ikusleen galderei txanda ireki aurretik,

hautagai bakoitzak azken hitza emateko aukera izan zuen.

Parte hartzearen sustapenarekin batera "gardentasuna da gure eredu", adierazi zuen Ana Carrerek. Politika egiteko eredu berria aldarrikatu zuen.

"Zuen izenean inork erabaki ez dezan, Andoain zeu zara".

Azken txanda horretan horixe izan zen Maider Lainez sozialistaren aipamenetako bat.

"Herri bat ezin da estankatuta geratu, eta bira emateko prest nago". Marijose Izagirrek azken txanpan bota zuen argudietakoa da.

Azken hitza atal horren bide-

oa bere osotasunean aiurri.com gunean ikus daiteke.

Galde-erreguetan bi joera nabarmendu ziren. Batetik, galdera hutsaz haratago hausnarketarako aukera baliatu zuten herritarrena. Tartean modu txarrean egindako parte hartze bat izan zen, tokiz kanpo egon zena.

Bestetik, alderdien arteko akordio faltaz eta adostasun ezaz gazi-gozo agertu ziren herritarrena.

Hautagaiei galdera egiteko herritar askok altxa zuten eskua, baina dagoeneko gaua zen eta ekitaldia bukatu beharra zegoen. Bertaratu zen jende kopurua ikusita, eta herritarren artean parte hartzeko gogo hori ikusita, etorkizun hurbilean Andoain antzeko solasaldi gehiago egiteko aukera serio aztertu beharko litzateke.

Aiurri astekaritik esker beroenak debatera hurbildu ziren herritarrei, eta baita hiru hautagai ere. Igande honetan Udal hauteskundeak izango dira. Hiru hautagai horien artean aterako da agintaldi berri-rako alkatea.

Debatearen bideoak ikusgai daude aiurri.com gunean eta sare sozialetan.

Bi ikusleren analisisia debatea amaitu eta berehala



Luzatu egin zen debatea. Irteeran analisi eskareri bi herritarrek erantzun zioten.

GURUTX LETAMENDI

"Inpresio ona eman dit batez ere mahai baten inguruan esertzeko kapaz izan direlako, eta

errespetuz hizketan aritu direlako. Interesgarria izan da ekitaldia; bi ordu pasa eta gero hori da esan dezakedana alde batetik. Baina beste aldetik, ikusi dut hemen bakoitzak berea defendatzen duela eta elkarrekin gauzak egiteko borondate gutxi erakusten dutela. Hori izan da ikusleek jaso dugun sententzia, nire irudipenerako.

Horrelakoetan ateratzen den ondorioa da euskaldunok batzeko premia handia daukagula, eta guztion artean, guztien mesederako izango den bideari ekiteko. Harrigarria da euskaldunon herria horren aberatsa izanik, zein gaitasun eskasa daukagun batzeko interes kolektiboaren alde".



JON IRAOLA

"Pixka bat penatuta jarraitu dut debatea, eta entzuleei hitz egiteko aukera eman zaigun metaforak erabili nahi izan ditut sentimendu etsigarri hori adierazteko. Batetik, hiru hau-

tagaiei aditzera eman diet pilota partida batean bezala aritu direla; elkarri begiratu ere egin gabe, peloteoan beti, ez dejudar txokora, ez zabalera, ez errematerik... Norbere aldetik jo du, bestearengana hurbiltzeko saiakerarik egin gabe.

Andoingo gizarteak bezainbateko premia daukate elkarbizitzarako. Andoingo goiko eta beheko partean bizitzeko aukera eduki dut, eta jendearen komentarioetan, jarreretan... sumatu ahal izan dut herriak oraindik bitan zatituta bezala jarraitzen duela, Zumea eta Goikoplaza Euskal Herria eta Espainiaren puntu neuralgikoak balira bezala. Herri honetan, zubiek, bi puntu elkarreztaz gainera, herritarren arte-

an dagoen urruntasun areagotzeko balio izaten dute. Ikusi besterik ez Juanita Alkain plazatik Oriaz bestaldera doan zer lortu duen...

Elkarbizitza ekintza txiki-kin lortu behar dela iruditzen zait. Axeri dantzaren kasua jarri diet eredutzat hautagaiei: iraganean, dantzaren ondorengo festa Santa Krutz edo Irunberri elkarrekin antolatzen zen, baina erabaki zen beste elkarrekin eramatea urtez urte, alegia Andoingo sententzietan ezberdinak ordezkatzeko dituzten giza taldeetara zabal-tzea jai giroa. Filosofia bereko adibide txikien bat jartzeko eskatu diet hautagaiei, baina ez zait iruditu erantzuten jakin dutenik".

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN

Debatea Andoainen



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

Maratoiaren erdian, alkategaiekin debatea antolatu genuen. Ordu gutxiren bueltan, albistea azkar asko zabaldu zen herrian. Lehen aldia zen hiru hautagaientzat, lehen aldia kazetariarentzat eta estrainekoa ikusleentzat. Udal hauteskunde kanpaina geroz eta ohikoagoa egiten ari da hautagaien arteko debateak antolatzea. Andoain dagoneko debatea sustatzen den herri horien artean aurkitzen da. Albiste ona da hori.

Ondo atera behar du, nioen nire baitan. Ekimenak segida izan dezan, eztabaidak Andoainen bere espazioa irabaz de-



zan. Esango nuke bertan izan ginenok ondorioen artean horixe bera atera genuela: Debatea beharrezkoa dela. Ehundik gora lagun hurbildu ziren, seinale ona da hori.

Egin behar zen, egin genuen.

Herritar askok kezka eta arduraz bizi dituzte gizarte mailan unean uneko sortzen diren auziak, eta hautagaiekin batera auzi horietaz hitz egin

nahi dute. Udal hauteskunde kanpaina, gainera, hautagai bakoitzaren iritzi zehatza jaso nahi izaten dute. Sanoa da, behar-beharrezkoa. Ibaien ur maila, hondakinen kudeaketa, etxebizitzaren desjabetzeak, langabezia, erraustegia... Hautagaiek ez zioten eztabaidari muzinik egin.

Politikariekin, bestalde, diotena lerro artean irakurtzen ja-

kin beharra dago. Esandakoe-tatik eta isildutakoetatik.

Ezin aipatu gabe utzi Basteron amaiera aldera nagusitu zen etsipen giroa. Hitza hartu zuen herritar bat baino gehiagorengan tristura nabaritu zen. Udal ordezkariak, guztiek, eredu izan beharko lukete akordioak eta adostasunak lortzeko garaian. Gabezia hori ordezkariak duten alderdi

guztiengan nabari dela, horixe aurpegiratu zieten galde-erre-guen tartean. Egin beharrekoen artean zinegotzi berriek datozen lau urteetarako zeregina badute, etorkizunean euren sokako botu-emaileei ere eutsi nahi badiete.

Hurbildutako jende kopurua ikusita, solasaldia amaitzeko azken hitzetan "zoazte plenotara!" bota nien ikusleei. "Aspergarriak dira!" berehala erantzun zidan adineko ikusle batek bigarren filatik.

Arrazoi izango du, beraz, Twitter kontuetan azkar dabillen Jon Zuluetak: "Debatea burutu izana da onena. Pleno aretotik atera eta udal politika herrira gerturatu behar da".

Basteroko ekimenak segida izan behar du, eztabaidak Andoainen bere espazioa irabazi behar du. Praktika gehiago behar dute hautagaiek, moderatzaileak eta baita parte hartzeko gogoia izaten duten ikusleek ere. Ikasiko dugu, hobetuko dugu.

gaur eguneko munduaren... gaur gure berronartia. Lortzena literatur...
EUSKARVA maite maitegarria, bere buru... **Mari Juli Azkueren omenez**

Luria, gure erara

Egapa Dantza Taldaren eta Anabason eskutik

Dantza ikuskizuna **111AKADEMIA:** k. aurkeztuta


OSTIRAL HONETAN

Andoain, 2015, maiatzak 22.
 Bastero Kulturgunea. 20:00

SARRERAK 10 €-tan SALGAI
Asteasu: Maitin liburutegia
Andoain: Ermitza eta Stop liburutegiak, Aiurri aldizkaria (Arantzibia plaza).
Urnieta: Sarobe zentroa eta Kantoitaberna
Amasa-Villabona: Amasa kafetegia

Pirritx, Porrotx eta Marimotox

TXO, MIKMAK TXIKIA



EKAINAREN 3AN URNIETAN, EGAPEKO JOLASTOKI ESTALIAN

17:30. SARRERA 7 EURO. DAGOENeko SALGAI. URNIETA: KANTOI. ANDOAIN: ERNAITZA, AIURRI.



ANDOINGO DOINU EZAGUNEN DISKOA BURUTZEN ARI DIRA GARATE STUDIOS GRABAZIO ETXEAN

Ahots bete doinu

Partaidetza zabala eduki zezan pentsatua zegoen grabaketa, eta ez zen eginkizun samurra. Baina erruz gainditu zen erronka. Ez alferrik, Andoaingo Udal musika eskolako gazteen eta helduen abesba-

tzak, Alberto agirre Abesbatza eta Olagain txistulari taldeak eta Gipuzkoatik etorritako hainbat instrumentu jolek zintzo eta profesionaltasunez jardun baitzuten.

Guztiak ere **Katrin Iturralde**, **Joxean Pascual**, **Joxe Mari Oiartzabal** eta **Joxe Mari Setien**en aginduetara aritu ziren, **Kaki Arkarazo** grabazio arduradun aritu zelarik. Honako kantak grabatu zituzten, hain zuzen: Andoaingo ereserkia (Joxe Mari Oiartzabal), San Juan Zortzikoa (herrikoia), Santa Krutz Martxa (Eulogio Saldias), Andoain (Luis Fraca), Maitasunezko hitzak (Alberto Agirre), Otso Beltza (Herrikoia), Goiburu (Jose Saez Pepe Andoain), San Esteban Ereserkia (Juan Bautista Barandiaran), Sorabilla (Joxe Mari Oiartzabal), Leizaran (Joxe Mari Huizi), Leizaran. Euskal fantasia (Joxe Mari Oiartzabal), Andoaingo sagardotegietako abestiak (herrikoia), Larramendi (Eulogio Saldias), Ama Kandida (Luis Mari Atxega), eta, Salbea (Pedro Aizpurua).

Gogoan izan, bigarren disko delata asteburuan grabatu dena. Herriko elkarteen ereserkiak batzen dituen lehen diskoa otsailean osatu zen. Azarorako espero da bi diskoak batera aurkeztea jendaurrean, musikariren zaindaria den Santa Zezilia egunarekin batera.



Joxe Mari Oiartzabal eta Katrin Iturralde kantari gazteekin batera.

CARLOS RUBIO ETA MIRARI UCIN MUSIKARI GAZTEAK

Musika instrumentu joleentzat izan zen larunbat goizeko txanda Garate estudioan. Horien artean, Andoaingo bi gazte jardun zuten: **Carlos Rubio** perkusio joleak eta **Mirari Ucin** saxofoi joleak.

Oso pozik agertu ziren grabaketa bukatu ostean. Mirari Ucin adierazi zuenez, "poli-

"Polita izan da bizipena, ahaztu ez dudan horietakoa, ez baikenekien zer zen estudio bat, eta gutxiago disko baterako grabazio batean parte hartzea"

Mirari Ucin

ta izan da bizipena, ahaztu ez dudan horietakoa, ez baikenekien zer zen estudio bat, eta gutxiago disko baterako grabazio batean parte hartzea". Carlos Rubio harrিতa azaldu zen, uste baino arinago joan zelako guztia. "Telebistan eta dokumentaletan ikusita geneukan nolakoa zen mikrofonoen aurrean zuzenean grabatzearen kontu hori; askotan aditzera eman zaigu maiz neketsuak gertatzen direla grabaketa prozesuak azkenerako, kantak behin eta berriro errepikatu behar izaten direla eta abar. Baina gaurkoan ez zaigu horrelakorik gertatu. Bizkor-bizkor joan da goiza. Kanta


"Zortzikoak jotzen eta grabazioa entzuten, kalejira eta festa giroa etortzen zaizkit burura"

Carlos Rubio

dutenak jendaurrean. Gogor eusten diote musika ikasketari, eta pribilegiatuak sentitu dira parte hartzeko eman zaien aukeragatik. "Gipuzkoan ospe handia daukaten musika joleekin batera aritu gara gaur, eta halakoetan ohartzen zara urte-tako entsegu eta sakrifizioek batzuetan ekarri ohi dutela beren saria".

Andoaingo herriaren ondare dira kanta tradizionalak grabatu zituzten, eta denak ere doinu gozokoak direla aitortu zuten bi musikariek. Zortziko doinua daukatenak azpimarratu zituen Rubiok. "horiek jotzen eta entzuten ari zarela, kalejira eta festa giroa etortzen zaizu burura".

Azkenik, biak ere iritzi bera agertu zuten: "Andoaingo jendeak harrera ona egingo dio diskoari kaleratzen denean, bikaina delako".



Mirari Ucin saxofoi jolea eta Carlos Rubio perkusio jolea.



Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzek elkarrekin jardun zuten.

Alex Rodriguesen liburuaren aurkezpena



Musika eta kirol arlotan ibiltzeagatik ezagutzen duten urnietar askok.

Historia de una pluma sin tinta liburuaren aurkeztu zuen Alex Rodrigues urnietarrak joan den asteartean, Lekaion. Lagun eta herrikide ugari bildu zen ekitaldira, eta amaieran ilera luzea sortu zuten; izan ere, egilearen eskaintza eta autografoa daraman liburu alearekin etxera joan nahi izan baitzuten askok.

Crowdfunding sistema erabili du Rodriguesek liburuaren argitalpena finantzatzeko, eta 10 eurotan jarri du salgai. Fikziozko kontakizun laburrak bildu ditu liburuan eta idazleak eguneroko kontu txikien inguruan irakurlea gogoetara bideratu nahi izan du. Liburuaren autolaguntzaren estilora hurbiltzen dela adierazi zuen, nahiz eta fikzioa eta irudimena erabili: "Egu-

neroko bizitzan sortzen zaizkion arazotxoak (beldurrak, zailtasunak...) objektiboki planteatzen dira istorioetan; eta aldi berean, horietan eman daitezkeen irtenbideak azaltzen zaizkio irakurleari".

Musika eta kirol arlotan ibiltzeagatik ezagutzen duten urnietar askok, eta harritu egin dira bere idazle senarekin. Honek adierazi zuenez, ordea, zenbait urte daramatza burura datorkiona paperera eramaten. Idaztea ariketa terapeutikoa egiten zaio la aitortu zuen, eta irakurlearentzat ere halaxe gertatzen nahiko lukeela adierazi zuen. Alexek oso maiz idazten du, etxeko barkadarean, eta bere blogean: todocomienzaenti.blogspot.com.es.

Postontzia

HONDAKINAK HAUTES PROGRAMATAN: ERRAUSKETA MAHAI GAINEAN

Andoaingo Eguzki

"Hondakinen gaian alderdi ezberdinak hauteskunde kanpaina esaten ari direnak ikusita, hala nola beraien hautes programak eta Aiurrik antolatutako eztabaidan esandakoa kontuan hartuta zera adierazi nahi dugu: Amaitze dagoen legegintzaldi honetan EAJ, PSE eta PPri, hondakinen kudeaketari dagokionean Bilduk onartu nahi zuen oro blokeatzen saiatu diren susmoa gurea.

Orain garbi ikus dezakegu Hondakinen Mahaian, denon artean—alderdi politiko eta gizarte eragileak— hartutako erabakiak hutsaren hurrengo direla beraien ztat, hirurak 2011-2015 agintaldia noiz bukatuko zain egon baitira berriz ere errausketaren bidetara heldzeko.

EAJ, PSE eta PPren asmoa errauskailu berri bat inposatzea dela, laugarrenez Gipuzkoan —bejondaiela!— hauteskundetan jaso dituzten botoen argudio "demokratikoaren" aitzakitan, ingurumenean edo giza osasunean izan ditzakeen eragin kaltegarriak kontuan hartu gabe.

Errauskailua Zubietan eraiki gero,

Andoain, herri kutsatu eta kaltetuenetakoa izango da.

Bilduri dagokionez, blokeoa egon den arren, bere eskura zeuden neurrietan —auzo konposta esaterako— saiakera sakonagoa egin ez izana faltan botatzen dugu.

Guzti honekin, Tolosaldea gure komunitatean hondakin birziklagarrien bilketan %60ra iristen ez den herri bakarra izatea lortu da. Andoain hondakinen %29a baino ez baita horrela biltzen. Gainerako herrien erdia baino gutxiago.

Eguzki bere aldetik, Zero Zabor helburua hartuta, Hondakinen Mahaian aurrea eta Andoaingo Udaltzaban aho batez ondoren, onartuta erabakiak gutxieneko oinarritat ditugularik, hondakinen ahalik eta kudeaketa egokiena bultzatzen saiatuko garela adierazi nahi dugu, osasuna, baliabide naturalak, energia ez xahutzea eta ingurumena zaintzen saiatuko delarik, betiere.

Eta noski, errauskailu egitasmo berria etortzen bada horri aurre egingo diogu eta andoaindarroi zera eskatu nahi dizuegu: herrian naiz Aldundian dauden aukeren artean ondo pentsatu nori eman botoa, EAJ, PSE eta PPri emanez gero zuen erabakiarekin, Andoaindik hiru kilometrora errauskailu bati atek irekitzen laguntzen aritu zaitezke eta".

HITZ-GEZIDUNAK

	Karrika	Sindikatu abertzalea	Mirakuluak
	Dozena bat	Elikadura	Ezagutzen du
	Itsasbaterreko amildegi		
Instintu		Dago	
		Kontsonantea	
Kafearen gaia	Abeslari	Ipar EH-n, esna	
Ganbara	Soinaren atal	Errenkadak	
		Bokala	Modu atzizkia
		Ate, hitz elkartzeetan	Damutatsuna
* IRUDIKO ESTATUA			
Kez bete			
			Potasioa
			Idi, hitz elkartzeetan
Dardara		Musika nota	Oinarritzko edari
Txori mota		Kontsonante bustia	
		Gorotza	
		N birritan	
Jarduera, aritzea			Kontsonantea

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Jatorri argentinarra duen dantza. 2.- Ardi, hitz elkartzeetan. Bizkaieraz, iratzea, garoa. 3.- Arrantza tresna. Ile multzo. 4.- Zigorra. Europaren laburdura. 5.- Bokala. Antolatu. Kontsonantea. 6.- Jupiterren satelitea. Zortzigarren hilabete. 7.- Garaia, aroa. Infusio mota. 8.- Errepikatuz, irakiten ari denean. Sartu aditzaren oina. 9.- Aurki.

GOITIK BEHERA: 1.- Emakume izena. 2.- Sortu zintuena. Palestinaren Askapenerako Erakundearen laburdura, gaztelaniaz. 3.- Aldaketa. Toka, du. 4.- Kanpo. Bedera-zigarraren hilabetea. 5.- Kontsonantea. Semearren arrea. Uranioaren ikur kimikoa. 6.- Bideratu. Kontsonante errepikatua. 7.- Lehen, zakurra. Arku. 8.- Sarrera. Gironako ibaia. 9.- Erabat haserre, herra bizian.

HIEROGLIFIKOA



Ikasgelako ikasle onenen izenak

ERANTZUNAK

Errenteria
Alaba. U. 6. Gidatu. Ss. 7. Ora. Uztai. 8. Ate. Ter. 9. Sutura.
GOTIK BEHERA: 1. Amata. 2. Ama. OLP. 3. Truke. Dik. 4. At. Italla. 5. N. Eratu. 1. 6. io. Abuztu. 7. Aldia. Tea. 8. Pll. Sar. 9. Kausi.

M	I	R	A	K	U	R
L	A	B	A	D	A	
K	A	M	A	E	N	D
H	S	E	A	T	A	
K	S	A	B	A	I	
S	A	B	A	I	N	
K	S	A	B	A	I	
S	A	B	A	I	N	



KIROL ALBISTEAK

Euskaldunaren balentria



Euskaldunako erregional mailako taldea, garaipena eta igoera lortu osteko argazkian.

Azken-aurreko partidaren garaipena lortu eta lidergotzara iritsita, Pasaian jokatu zuten azken jardunaldian garaipenak ezin zien ihes egin. Igoera lortu eta berehalako irudiak Aiu-ri.com gunean ikusgai daude.

ERREGIONAL PREFERENTEA 30. jardunaldia

Orioko 1-0 Urnieta
Pasaia 1-2 Euskalduna

Sailkapena:

1. Euskalduna	70
2. Orioko	68
3. Baskonia	61
4. Urnieta	55



Pasaian jokalariek eta zaleak pozarren ziren.

Final aurrekoetara iritsi da areto futbol txapelketa

Final aurrekoetara iritsi da areto futbol txapelketa. Final aurrekoetara iritsi da areto futbol txapelketa.

Ekaitz-Extremeño Andoain

Joanekoa 24/05. 09:15.
Itzulikoa 31/05. 11:15.

Centro Extremeño-Aure Maiton

Joanekoa 24/05. 10:15.
Itzulikoa 31/05. 12:15.

Academia G.F.-Pausoka

Joanekoa 24/05. 11:15.
Itzulikoa 31/05. 09:15.

Keler-Txalaka

Joanekoa 24/05. 12:15.
Itzulikoa 31/05. 10:15.

Lizeaga ez zen Zegama Aizkorri lasterketan irten

Zegama Aizkorri Mendi Maratoia

2015.V.17. Sailkapena:

1	3:51:11	Tadei Pivk
2	3:51:47	Manuel Merillas
3	3:52:50	Pere Rullan
4	3:59:27	Aritz Egea
5	3:59:48	Marco De Gasperi
6	4:01:19	Jessed Hernández
7	4:01:36	Michel Lanne
8	4:02:01	Zaid Ait Malek

9 4:08:59 Ionut Zinca

10 4:09:59 Hassan Ait Chaou

Andoain

39 4:29:20 Abderrahim El Qayed

215 5:34:56 Uxune Tena

381 6:37:10 Andoni Tena

400 6:45:21 Asier Garitaonandia

453 7:20:20 Alfredo Rodríguez

Urnieta

149 5:13:08 Mikel Legarreta

220 5:36:12 Jon Urdangarin

Junior trail

10.4 Km. Sailkapena:

1 45:08 Jan Margari

2 47:06 Aitor Ajuria

3 47:11 Martí Vigo

Urnieta

21 54:29 Ander Zubizarreta

Andoain

22 54:42 Oier Escudero

Iturzaeta memorial bikoitza, partidak asteburu honetan



Iturzaeta memoriale herrikoia

Binakako Pala txapelketa herrikoia. Sorabilla. Goizez eta arratsaldez. Maiatzak 23, larunbata. Euriarekin, azken erabakia bertan hartuko da.

Iturzaeta memoriale

Pala binaka. Arrate. 21:30 Maiatzak 22, ostirala: Arizaleta-Belestin // Arozena-Zabala Sanz-Arruti // Elizondo-Mariñelarena

Manterola Mutrikuko lasterketan txapeldun



Garaipen bikaina lortu zuen Mutrikun Manterola Andoaingo taldeko jubentak. Postu onak egin ditu; taldeka ere beti onenen pare ibili dira. Zorionak Peio!

Sailkapena:

1. Peio Manterola (Andoaingo)
2. Mikel Paredes (Ampo)
3. Iñigo Altuna (Buruntzapi)
17. Koldo Velasco (Andoaingo)

Leizaran 26-31 Urnieta

Urnieta Balerdi harategiko senior mutilek garaipena lortu zuten Leizaran eskubaloia taldearen aurka Alluralden jokaturiko partidaren. Bi jardunaldien faltan Egia eta Leizaran puntu batera dituztenez, kopan aukerakin jarraitzen dute. Norgehiagoka espero zen baina borrokatuagoa izan zen. Hasiera batean andoaindarrek aurrea hartu zuten, baina atsedenaldira urnietarrek aurretik jartzea lortu zuten (11-12).

Bigarren zatian hasieran gorritxoak 5-1 defentsa mistoarekin partidaren jabe egin ziren, markagailuan alde handituz. Partida urnietarren alde izango zela uste zenean, urnietarren hutsuneak ondo baliatu eta Leizaran gol bakarrera jarri zen markagailuan (20-21). Urnietarrek orduan Urigoitiaren eskarmentua edota Sanchezen maisutasuna baliatu zuten, partida irabazteko.

Ganbarak ez du igoera lortu

Asteburuko emaitzak:

Andraitz 65-35 Ganbara SenM
Ganbara KadM 56-41 Añorga
Axular 42-28 Ganbara InfM

Datorren jardunaldia

Ganbara InfM-BKL
Maiatzak 23, lar. 09:35. Andoain.
* Seniorrei igoerak ihes egin die.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 21ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- "La familia Belier".
Larunbata, 23: 19:30, 22:00.
Igandea, 24: 19:30.
Astlehena, 25: 19:30, 22:00.
- Hurrengo asteetan:
"Suite francesa".

Urnietan, Sarobe

- "Pride".
Ekainak 26 eta 28.

Matrikula

Andoain

- Galardi haur eskola.
Maiatzaren 25etik aurrera.

Urnietan

- Udak musika eskola, matrikulazio kanpaina ikasle berrientzat.
Maiatzaren 22ra arte.

Aisialdia

Andoain

- Goazen Jolastera 2015, udaleku irekiak. 2007-2012 bitarteko haurrei zuzenduta. Bi txanda: Ekainaren 29tik uztailearen 17ra eta uztailearen 20tik 30era.
Izena emateko epea:
Maiatzak 29.

Pailazoak

Urnietan

- Pirritx, Porrotx eta Marimotzen ikuskizun berriena.
Sarrerak salgai:
Urnietan: Kantoi.
Andoain: Ernaitza, Aiurri.
17:30. 7 euro.
Egapeko jolastoki estalia.
Ekainak 3, asteazkena.

Argazkia

Urnietan

- Argazki-rallya.
Maiatzak 30, larunbata.

Andoain

- Argazki-rallya.
Maiatzak 31, igandea.

Dantza

Andoain, Bastero

- "Zuria, gure erara". Egape dantza taldearen ikuskizuna.
20:00. Auditorioa. 10 euro.
Maiatzak 22, ostirala.

Bozak

Andoain, Urnietan

- EH Bilduren kanpainaren itxiera sardin jatearekin.
20:00. Espigoia.
Maiatzak 22, ostirala.

Andoain, Urnietan

- Udak eta Foru Aldundirako hauteskundeak.
Urnietan: Lekaio.
Andoain: Hainbat tokitan.
09:00-20:00.
Maiatzak 24, igandea.

Gazte Jaiak

Urnietan

- Gazte festak maiatzaren 29tik 31ra.
Maiatzak 29, ostirala
19:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira.
20:00 Txupinazoa eta ondoren Egape dantza taldekoen emanaldia.
Maiatzak 30, larunbata
12:00 Kantoitik potea gurgil gainean.
14:00 Bazkaria Idiazabal kalean. Txartelak eskuragarri, maiatzaren 26ra arte: Xauxar, Guria.

Tailerrak

Andoain

- Jon Andoni Martinen eskutik, Nopodigigrafia.
09:00-12:00. Doan.
Maiatzak 23, larunbata.
Izen-ematea:
argazkialdia@argazkialdia.com.
- Gartxot Arregik zuzenduta, postal tailerraren edizio berria. Izen-ematea:
maiatzaren 28ra arte.
10:30-13:30, 18:00- 20:30.
Maiatzak 30, larunbata.

Azoka

Andoain

- Lore eta landareen azoka, lehen edizioa: azoka, tailerrak eta haur jolasak.
09:00-14:00. Kale Nagusia.
Maiatzak 23, larunbata.

Lehiaketa

Urnietan

- Muxu Goxo elkarteak sortu berriari logotipoa jartzeko lehiaketa. Argibideak asteazken honetan, 2. orrialdean.
Saria: 150 euro.
Epea: maiatzak 31.

Odol-emaileak

Urnietan

- 18:30 20:30.
Anbulatorio zaharra.
Maiatzak 29, ostirala.

Andoain

- 18:30 20:30.
Anbulatorioa.
Ekainak 9, asteartea.

Ikastaroa

Andoain

- "Euskara Plus", Banaiz Baga eta Udalaren eskutik. Euskaraz komunikatzen ikastea, lan munduan oinarritzko mailan aritu ahal izateko: Ostalaritza-merkatari-za, pertsonen zaintza eta industria. Doan.
Izen-ematea:
943 304 343 | 943 304 221.

Erakusketa

Andoain

- Argazkialdiaren baitan erakusketak Basteron eta herriko hainbat plaza eta tabernetan.
Ekainaren 14ra arte.

Irteera

Andoain

- "Andoain, beste ikuspegia".
Maiatzak 31, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Maiatzaren 19an, **Nahikarik** 18 urte bete zituen. Ondo ospatu maite duzun guztiekin, 18 urte ez dira egunero egiten! Muxu bat etxekoen partez. Maite zaitugu!

URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 24an 18 urte beteko dituzenez, behar den bezala zoriondu nahi zintugun! Ederki pasa **Itxasito!** "Neska jatorra zarelako... ta beti izango zarelako!"

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak amona **Maritxu!** Maiatzaren 23an beteko dituzun urte borobilengatik. Muxu handi bat zazpi biloben eta etxeko gainerakoen partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Ander Eizagirrek maiatzaren 22an urteak beteko ditu, bere **aitak**, berriz, 28an. Zorionak bioi eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 17an **Alejandrok** 18 urte bete zituen eta 26an bere arreba **Leticia** 22. Zorionak eta muxu bana. Aita eta ama.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN
• diseinua@aiurri.com

• Whatsapp bidez:
619 163 537.

Gu ere bertsoan

Hiru ikastetxeetako 10-12 urteko ikasleen eskutik, *Gu ere bertsoan* saioa. Sarrera

gonbidapen bidez izango da. 17:00, 18:30. Bastero.
Maiatzak 26, asteartea.

'Andoain, beste ikuspegia'

Andoaindarrak 400 ekime-
nez, "gure herriko beste iru-
dia ezagutzeko, Euskalduna
mendigoizale taldearen es-
kutik, mendi ibilaldia Goi-
buruko plazatik abiatuta.

Autobus zerbitzua Zumeata-
rratik Goiburura. Hamaika-
takoa eta oparitxoa.
09:30 Goiburu (Zumeata-
rratik bus zerbitzua 09:00).
Maiatzak 31, igandea.

Argazkialdia Andoainen

Argazkialdian tamaina han-
diko argazkiez osatutako
erakusketak 400 urte bete-
tzen dituzten udalerrri gipuz-
koarrek denborarekin izan
duten bilakaera erakusten
dute. Goikoplaza eta Zumea
plazako etxolatan argazki
horiek ikus daitezke. Antola-
tzaileek oharra kaleratu dute
egun hauetan: "Haurrek
obra-etxolen barrualdean jo-
lasten jarraitzen dutenez, eta

honek bertan erakusgai da-
goen lana kaltetu dezakeela-
koan, Argazkialdia'15 Irizar-
ek ondorengo erabakia hartu
behar izan du: obra-etxolak
asteburuetan bakarrik ireki-
ko dira, aurretik jakinarazi-
tako ordutegian. Norbaitek
asteen zehar erakusketak
ikus nahiko balitu, argaz-
kialdia@argazkialdia.com
email helbidean hitzordua
eska dezake".